

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza^{info}

Asteartea, 2011ko maiatzaren 17a. VIII. urtea. 2.226. zenbakia. www.tolosalde.hitza.info



Lizartzako ikasle gazteen astea iritsi da

XXII. Eskolaren Astea atzo hasi zen, ostiralean amaitzeko; gaur afari-merienda egingo dute eta bihar jaialdia, 19:00etatik aurrera **6**

Eskualdeko hiru pilotari aurkitzen dira finalerdietan

Banakako Txapelketan aurrera egin dute Jaunarena, Olaetxea eta Bengoetxea VI.ak **7**

Txelo Romeo

EAJ-ren Ibarako alkategaia

«Alderdi bezala osasun zerbitzu publikoa izatearen aldekoak gara»

Elkarriketa **2**



→ Ongietorriesan diote Asteasuko eskola berriari.

Alde batetik, eskola handitzeko eraikin berri bat egin dute, eta bestetik, Lehen Hezkuntzako zaharra birmoldatu dute; lanen kostua 2.198.160 eurokoa izan da, eta %63a Eusko Jaurlaritzak ordaindu du. **6**



TOLOSAKO
INMAKULADA
IKASTETXEA



Kondeko aldapa 5B Tolosa • 943 67 36 29
www.inmakuladatolosa.com

HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia

**ATE IREKIAK
MAIATZAK 19
15:30 - 18:30**

Erdi Maila

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia eta parafarmazia teknikaria
- Sarbide proba

KALITATEZKO FORMAZIOA

Aska ezazu irudimena zure DISEINATU



ceinpro
TITULAZIO
OFIZIALAK

**ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA
ZIKLOAK DISEINU GRAFIKOAN**

Heriz Pasealekua 96 • 80008 Donostia • Gipuzkoa • 943 310 873 • www.ceinpro.es

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →

E. MAIZ

Txelo Romeo ▶ EAJko Ibarako alkategaia

Zortzi urte alkatetzan eman ostean, beste legealdi bati aurre egiteko prest dago EAJko alkatagaia izango den Txelo Romeo. Lehentasunen artean, herrian hasita dituzten proiektuak aurrera eramatea izango du.

«Normalena hauteskundeetan indar politiko guztiak egotea da»

Enertiz Maiz Ibarra

Zortzi urte daramatza Txelo Romeok Ibarako alkate lanetan. Igandean izango diren Udal Hauteskundeetara, berritzaile, alkate izateko helburuarekin aurkeztu du bere burua. Herriarrek, urte hauetan egin duten lana baloratuko dutela uste du, eta bozkatzerako orduan kontuan izatea espero du. «Lan asko eta ongi» egin dutela azaldu du, eta hauteskunde hauen aurrean «kontzientzia lasa» duela. «Herriak» esango du zer nahi duen.

Azken lau urte hauen inguruan, zein balorazio egiten duzu?

Lau urte hauetan ondo eta gogor lan egin dugu. Gauza asko egin ditugu, eta aurrera eraman ditugu. Balorazio orokorra positiboa da. Azkenean Ibarra, 2004. urtetik zegoen U-11 proiektua gauzatea eta adjudikatzea lortu dugu, plan orokorra ia onatatzear gaudela eta hau konpromiso politikoa izan da. Bi proiektu hauek oso garrantzitsuak izan dira Ibararentzat. Gainera administrazioa gauzak denbora asko eskatzen dute, eta teknikoak dira. Negozia-

tu egin behar izaten da eta denbora pasa egiten da. Hala ere, baikorki baloratzen dut.

Zeintzuk dira hurrengo legealdirako dituzten punturik garrantzitsuenak?

Hasteko aipatutako obra bukatzea oso garrantzitsua izango da. Lau milioi eurotako proiektua da eta oso garrantzitsua da. Obra bukatu, hornitu eta martxan jarri nahiko genuke. Bertan egingo diren etxebizitzak tasatuak bukatzea, eta 18 urtetik hasi eta 35 urte bitarteko gazteei begirako ekipamenduak adjudikatzea izango da helburu nagusia. Eskualdera begira turismoa bultzatzea izango da helburuetako bat. Komertzioa ere bultzatu nahi dugu, eta udal eraikinen mantentze lan egokia egingo dugu. Krisi garai honetan, ahalik eta hobekien gestionatzen saiatuko gara, eta ez dakigu ongi krisia nola garatuko den, eta kontuz ibili beharra daukagu.

Nola ikusten duzu krisi egoera honek udalaren kudeaketa?

Oso formalak izan beharrean gaudela, eta garbi hitz egin da, uste dut kontuak era zaharrera egin beharra daukagula. Dirua itzuli

behar izan dugu, eta ateratzen diren albisteekin kezkatuta gaudela, agian gehiago itzuli beharko dugun ere ez dakigulako. Gu ez gaudela kezkatze moduan. Ongi kudeatu dugu, ez dut kontrakoa esango; urte bakoitza, gastuak ordainduta itxi dugu, ongi aurkitzen da udala. Hori ez dago batere gaizki.

Tolosaldean AHTren lanak hasita daude. Zein da zuen jarrera azpiegitura honi dagokionean?

Modernitate daraman azpiegitura handiak eragiten dituzten obra guztiek, hegazkinak barru, ingurugiroan eragiten dute. Baina aurrera begira, gizakiak, gizarte globalizatu honetan, baliabideak behar ditu. Nahiz eta guzti hori jakin, egia esan, ni ez nago aurka. Guztiok dakigu, gaur egun zementurik ez dagoen lurretan sartuta ingurugiroan eragina duela. Atzera begiratu gero, ez genuke ezta errepide bat bera ere egingo. Baina, lehen ere ez geunden ondo, eta jada ezin dugu astoaren gainean ibili.

Azken hilabeteetan zabor biltzetan gaia pil-pilean dago; aukera ezberdinak daude aztertzeak: bosga-**ren edukiontzia, atez ateko bilteta, erraustegia, ... Zein da zure iritzia gai honekiko?**

Nire, zure, eta denon zaborra da. Zabor pila bat sortzen dugu. Eta erraustegiaz hitz egiten da, eta badirudi epe laburrean gauzatuko dela. Ez dut azterketa ekonomiko errealek esku artean baina, nik ez dut sekula garbi eduki atez atekoarena eraginkorra izan daitekeenik. Bosgarren edukiontzia ongi legoke, edota seigarrena edota zazpigarrena ere. Bakoitzak bere zaborra atera eta bota dezala, eta ez etxera etortzea nire zaborraren bila. Norberak jakitun izan behar du, eta edukiontzia bakoitzera bosgarrena, seigarrena edota zazpigarrena izan, zer bota behar duen. Eta gauza batzuk birziklatzeko aukera izango da, eta beste batzuk ez. Bere zailtasunak ditu, eta soluziobide bat bilatu beharko da.

ETarensu-etenaren ondoren, Euskal Herrian garai berria ari gara bizitzen; eta Bildu hauteskundeetan dago. Nola ikusten duzu?

Azkenean iritsi da. Guztiok gaudela ikustea positiboa da niretzat. Normalena hauteskundeetan in-

↓ Gertutik**Zure egunerokotasunean zer egiten duzu politikatik deskonektatzeko?**

Paseatu. Askok gustatzen zait paseatzea.

Herriar bezala, ba al duzu konfiantzarik politikarientz?

Nik bai. Gauza asko entzuten dira baina jende zintzoa gertzen da oraindik. Esaten dutena esaten dutela, ni emakume zintzoa naiz, eta ez dut ezer txarrik egin. Eta politikan kargua duten edota sartu daitekeen jendea ere zintzoa izango dela iruditzen zait.

Herriar bezala, zer erregatzen zaitu egunerokoa?

Politika munduan jende zintzo asko dago, eta mindu egiten zaitu. Eta nahikoa da batek gauzak gaizki egitea, beste guztiok kutsatzeko, eta izugarria da. Eta hori da batere gustatzen ez zaidana. Horrek guztiak mintzen ditu; gaudenak, datozenak eta etorkizun batean egon daitezkeenak. Eta ez haserretzen ikasi beharra daukazu.

dar politiko guztiak egotea da. Ez da batere atsegina batzuk ilegalizatuak izatea. Eta kalean gaudenontzat gogorra da, zeren azken finean guzti hau erabakitzen dutenak beste batzuk dira.

Eskualdeari ukitzen dion beste gaia Osasun zerbitzu publikoarena da. Larunbatean manifestazio jendetsua egin zen Tolosan pribatizazioaren aurka. Zein da zure iritzia gai honen inguruan?

Gu alderdi bezala osasun zerbitzua publikoa izatearen aldekoak gara. Jada, gure alderdiak Eusko Jaurlaritzan aurkeztu ditu txostenak. Guk emakume eta gizonez lan postuak defendituko ditugu, eta baita zerbitzua publikoa izatea ere. Zerbitzu hauek zaindu egin beharra daude, eta ez bakarrik osakidetzako departamentuak, baita gizarte ongizatekoak ere. Hauek defenditzeko borroka asko egin beharra dago. Ideiak oso garbi eduki behar dira, eta zer defendatu nahi dugun ere oso garbi izatea komeni da. Eta oinarritzak den osasun zerbitzua, publikoa izatearen aldeko apustua egin beharra dago.

Publikoak ez diren euskarazko komunikabideek egoera aztertzen dugu, eta erakunde eta eragileei eskaera zehatzak egin dizkizuegu, adibidez, diru laguntzak. Zein iritzia duzu?

Era batera edo bestera, gu, elkarlanean, hedabideak laguntzeko prest gaudela. Eta beharrezkoa da, nire seme-alabek, bilobek edo edonork euskaraz irakurri, ikusi edo entzuteko aukera izatea. Euskaraz edo gaztelaniaz izan daiteke. Egoera normalizatua izango litzateke hori.

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →

Amezketako Bilduko zerrendagaiak. HITZA

Bilduk herri programak aurkeztu ditu eskualdeko hainbat herritan

Amezketan, Iruran eta Anoetan pasa den asteburuan izan dira aurkezpen ekitaldiak

Itzea Urkizu

Eskualdeko hainbat herritan, Bildu koalizioak aurkezpen ekitaldiak egin ditu pasa den asteburuan. Amezketan eta Iruran, herri programak aurkeztu dituzte. Anoetan, berriz, Bilduk antolatutako hainbat ekitaldi izan dira maiatzaren 22ko hauteskundeak direla eta.

Iruran, ostiralean aurkeztu zituzten datorren legealdirako dituzten asmo eta proiektuak, eta ondorengo puntuak nabarmendu zituzten: babes ofizialeko etxebizitzak nahiz tasatuak, hondakin eta kontsumo jasagarria bultzatzea, trafiko astuneko arazoa konpontzea, udalaren eta herritarren arteko tartea murriztea, berdintasuna, hirugarren adinekoentzako aurreikusita dagoen egoitza baliatzea, eta kulturaren nahiz kirolaren partekatze lanak martxan jartzea, beste lekuetako ohiturak ezagutzeko. Bide bereetik, Irurako xarea eta euskara berezik zaindu beharreko «altxorra» direla nabarmendu zuten. Azkenik, ostiral honetan, 21:00etan, herri afaria ospatuko dute.

Anoetan, ostiraletik igandera bitarteko egitarauaren barruan, herenegun eguerdian izan zen Bilduko zerrendaren aurkezpen ofiziala. Ostiralean, maiatzak 13,



Irurako Bilduren aurkezpena. HITZA



Anoetako Bilduren aurkezpena. HITZA

Esne Beltzaren kontzertua izan zen gaztetxean. Larunbatean, berriz, bertso saioa ospatu zuten auditorioumean; Uxue Alberdi, Amets Arzallus, Onintza Enbeita eta Jon Maia izan ziren bertsolariak, eta Amaia Agirre gai jartzailer lanetan aritu zen.

Igandean, azkenik, pilota partidekin hasi, eta zerrendaren aurkezpen ofiziala eguerdiko 12:00etan egin ondoren, sagardo dastaketa, txekor jatea eta erromeria izan ziren.

Amezketan, lau ardatz nagusi-

ren gainean osatu dute herri programa: nekazaritza eta ingurugiroa, kultura, ongizatea eta hiri-gintza. Besteak beste, zaborren eta uren kudeaketa, lehen sektoreari lehentasuna ematea, kultur eskaintza zabaltzea, euskara indartzen jarraitzea, herri kirolak sustatzea, erreka bainurako ego- kitzea, etorkinak herritar sentiaraztea, emakumezkoen egoera ezagutzea eta etxebizitza eskubidearen alde egitea izango dira helburu nagusiak.

● tolosa@hitza.info

EAko militante ohiek gauzak «argi» utzi nahi dituzte Alegian

Azken urteotako gertaerak direla eta, EA urtarrean utzi zutela diote, eta ez dutela Bildurekin zerikusirik

Erredakzioa Alegia

Orain dela gutxi Alegiako Eusko Alkartasunako militante zirenek ohar bat kaleratu dute, gaizki-lertuak saiheste aldera, une honetan Euskadiko mapa politikoa jasaten ari den aldaketen aurrean euren egoeraren berri emateko helburuz.

EAko militante ohiek gutunean azaldu dutenez, iazko uztailean Eusko Alkartasuna uztea erabaki zuten aho batez, euren iritziz «Urizarren alderdiak izandako bilakaerak EAren hasierako helburuekin bat egiten ez zuelako». Horren ondorioz, alderdiak Alegian zuen antolaketa desegina geratu zen.

Horrekin batera gogorarazi

nahi izan dute 2003az geroztik ezin izan dutela udal hauteskundeetan kandidaturarik aurkeztu. «Horren arrazoiak udalean egon ginen garaian geuk eta geure senideek jasan behar izan genituen irain eta mehatxuetan aurkitu behar da, jazarpen hori ez baitzen inola ere onargarria, balizko hautagai askorentzat».

EAko militante ohiek Bilduren zerikusirik ez dutela jakinarazi nahi diete herritarrei. Era berean, honakoa ere argi utzi nahi izan dute: «Beti defendatu izan dugu alderdi politiko guztiek udal hauteskundeetan parte hartzeko duten eskubidea, eta aurreantzean ere halaxe egingo dugu». Udalean egon diren urteetan zehar alegiarrengandik jaso zuten babesa eskertu ondoren, «agian egunen batean, Alegiara normalizazioa iristen denean, eta beharrezkoa bada, baliteke berriz gure herriaren kudeaketa parte hartzeko moduan izatea, hogei urtetan zehar ahalegin osoz egin genuen bezala».

Irudia ▶ Tolosa

EAJ KALEZ KALE IBILI DA

EAJko hainbat hautagai Tolosako kaleetan barrena ibili ziren astelehen arratsaldean, herritarrei eskuorriak eta gozokiak banatzen. Besteak beste Tolosa, Ibarra, Alegi, Irura eta Anoetako EAJko hautagaiak parte hartu zuten ibilaldia. Era berean, Trianguloa plazan EAJren autobusa egon zen. Arratsaldeko 18:00ak inguruan, bestalde, Markel Olano ahaldu nagusiak agerraldia egin zuen Villabonan, beste hautagai batzuekin batera. ITZEA URKIZU

Epai mahaiak aukeratu ditu Argazki Lehiaketako argazki finalistak

Harpidedunek ostirala, maiatzak 20, bitarte aukeratu dezakete gehien gustatzen zaien argazkia

Hiru irabazleen izenak eta irudiak gaur zortziko egunkarian argitaratuko dira

Erredakzioa Tolosa






Bukatu da XIII. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea, baina orain bozka emateko garaia heldu da. Zortzi irudi hauek aukeratu ditu TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak osatutako epai mahaiak finalista bezala, eta orain harpidedunen txanda da. Argazki hauek kalitate hobegorekin ikusteko sartu www.tolosaldea.hitza.info-ra, eta bertan XIII. Argazki Lehiaketa atalean sartu.

Harpidedun bakoitzak bozka bakarra eman dezake, eta ostirala, hilak 20, da gustuko den argazkiaren aldeko bozka emateko

azken eguna. Boto emaileen artean sari bat zozketatuko dugu.

Irabazleen izenak eta irudiak, aldiz, hilaren 24ean argitaratuko ditugu. Lehen saria eskuratzen duenak Photokafek eskainitako Sony DSC-HX1 argazki kamera etxeratuko du, bigarrenak Markina Xemeingo Satzu landetxean bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia, eta hirugarrenak Tolosako Amaroj jatetxean bi pertsonentzako otordua irabaziko du.

Hamahirugarren edizio honetan ere argazki ugari jaso ditugu, eta parte hartzaile guztiei esker eman beharrean da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA.





195.000 € inbentarioa

IBARRA

Promozio berria

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.

Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com



1. Eburne Gomez, 2. Olatz Etxeberria, 3. Arantxa Arsuaga, 4. Jose Angel Artutxa, 5. Olatz Gereño, 6. Iñaki Ulazia, 7. Inmakulada Sorondo, eta 8. Juan Luis Artola.

Villabona ▶**LAU DANTZARI FINALEAN**

Asteburu honetan burutu da XVII. Euskadiko Soinu Zahar Txapelketaren finala Le-gazpian. B sailean parte hartu zuten Oinkariko dantzariak, eta finalera lau iritsi ziren. Lehia oso estua izan zela azpimarratu dute Oinkaritik. Puntuaketa altuena Villabo-nako Ane Urruzola dantzariak lortu zuen. Goraipatu ere Maddi Otaegik egindako lana, finaleko gaztetxoena izan arren 7. postuan sailkatu baitzen. Saioa Etxabe eta Jone Mendiluze dantzariak ere maila bikaina eskaini zuten. HITZA

Alegia ▶**MARTIN ETA MUJIKA, ONENAK**

G Puntua Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren lehen faseko bi saio jokatu dira Ale-gian. Goizeko saioan Iñigo Izagirre, Alaia Martin, Josu Igartua, Maialen Velarde, Ima-nol Lizarazu eta Oier Aranzabal aritu dira. Alaia Martin (argazkian) izan da puntu gehien batu duena, 341,5. Arratsaldekoan Joseba Barandiaran, Gorka Etxeberria, Manex Mujika, Ainhoa Mujika, Manex Mantxola eta Ane Labaka aritu ziren. Manex Mujika izan da puntu gehien batu duena, 273. HITZA

Leitza ▶**ESKOLA ARTEKO TOPAKETA**

XII. Haur, Guraso eta Eskolen Arteko Topaketa ospatu zuten larunbatean Leitzako Er-leta eskolan eta Amazabal frontoian. Egun guztian egin zituzten ekitaldiak: eskula-nak, jolasak, diaporamak, dantzak, bertsoak, bazkaria... Pasa den urtean Goizuetak eman zion testigua Leitzari, eta aurten honek Aresori emango dio. HITZA

Tolosaldea ▶**BASERRITARREN OMENEZ**

Eskualdeko hainbat herritan San Isidro Eguna ospatu dute. Baserritarrek omentzen dira egun horretan. Batez ere afariak eta bazkariak (argazkian Berastegin egindakoa) izan dira nagusi. Zenbait herritan ere izan dira kalean egindako ekitaldiak, Alkiza, Amasa, Asteasu edo Zizurkilen. SARAGOMEZ

Tolosa ▶**ILARRA PROTAGONISTA**

Kilometro O ekimenaren beste jardunaldi bat izan zen larunbatean Zerkasian. Donostiako Ilarra jatetxeko Joxean Eizmendi eta Asti-garragako Roxario jatetxeko Txaro Zapiain sukaldariak aritu ziren lanean. Hainbat plater prestatu zituzten ilarra oinarri hartuta. M.U.



Ongi etorri festa egin diote Pello Errota eskola eraberrituari

Ikasleek egin duten agurrarekin eman diote hasiera festari; 250 ikasle ditu gaur egun eskolak

M. Ugartemendia Asteasu

Atzo ongi etorri festa egin zioten Asteasuko Pello Errota eskola berriari. Eskolaren eraikina birmoldatu eta berria eraiki dute, haur eskola barneratuz. 2010eko martxoaren 26an jarri zuten eskola berriaren lehen harria, eta maiatzaren 2an estreinatu zuten lehengo aldiz ikasleek eskola.

Eskola berri honi atzo egin zioten ongi etorria. Eskolak antolatutako zuen jaia, eta bertan parte hartze- ra gonbidatu zituzten ikasleak, gurasoak, irakasleak eta Larraulgo eta Asteasuko udalbatzarreko kideak.

Arratsalde osoko festa izan zuten bertaratu zirenek. Lehenik eta behin, eskolako haurrek herriko dantza irakaslearekin txukun-txukun ikasitako agurra dantzatu zuten. Jarraian, Jexux Mari Irazuk eskolarentzako prestatutako bertso batzuk abestu zi-



Umeak kalejiran ibili ziren antzeztanaren ondoren. IMANOL GARCIA

tuen, gurasoen eta musikaren laguntzarekin. Ondoren, Kontu Kantoi antzerki taldeak eskolarekin lotura zuen gidoi umoretsu bat prestatu zuen, eta denen aurrean antzeztu zuten.

Ekitaldi guzti horien ondoren, eskolaren aurrean dagoen parkean zuhaitzak landatzeari ekin zioten. Alde batetik, Amaia Usabiega irakasle ohiaren omenez plaka bat agertu zuten, eta ondoren zuhaitz bat landatu zuten. Gero, gela bakoitzak bere zuhaixka ere landatu zuten. Azkenik, musikarekin eman zioten amaiera ongi etorri jai honi.

250 ikasle

Asteasu azken urte hauetan asko hazi den herria da. Honegatik herrian bertan behar berriak sortu dira; horien artean zegoen eskola, txiki gelditu baitzen. Azken sei ikasturteetan ia hirukoitzu egin da ikasle kopurua. Orain dela 6 urte 96 ikasle baitzeuden eskolan, eta gaur egun 250 baitira.

Guzti hau dela eta, alde batetik, eskola handitzeko eraikin berri bat egin dute. Eta bestetik, Lehen Hezkuntzako eraikina birmoldatu dute. Eskola handitzea 2.198.160 euro kostatu da, eta %63a Eusko Jaurlaritzak ordaindu du.

Martxan da XXII. Eskolaren Astea

Atzo hasi eta ostiralean amaituko da XXII. eskolaren astea Li-zartzan. Urtero antolatzen du aste hau herri eskolak, eta bertan eskolako haurrei nahiz herritarrei zuzendutako hainbat ekitaldi izaten dituzte. Atzo esate baterako, ikasleek eskulanean eman

zieten hasiera eskolaren asteari. Iluntzean, berriz, puntu txapelketa bat ere egin zuten. Baina, datozen egun hauetan ere jarraipena izango dute ekitaldi ezberdinek. Gaur afari-merienda bat

↓ Eskolaren Astea

M. Ugartemendia Lizartza

Atzo hasi zen eta ostiralean amaituko da XXII. eskolaren astea Li-zartzan. Urtero antolatzen du aste hau herri eskolak, eta bertan eskolako haurrei nahiz herritarrei zuzendutako hainbat ekitaldi izaten dituzte. Atzo esate baterako, ikasleek eskulanean eman

EGITARAUA

- **Maiatzak 17, gaur.** 19:30ean afari-merienda.
- **Maiatzak 18, bihar.** 19:00etan dantza.
- **Maiatzak 19, etzi.** 19:00etan zinea: *Ice age 3*.

egingo dute, biharko jaialdi bat ere prestatu dute, eta etzi *Ice age 3* filma ikusteko aukera ere izango dute herritarrek. Baina, ekitaldi ireki hauez gain, eskolako ikasleentzat ere prestatu dituzte zenbait irteera edo jolas ere. Gaur esate baterako, HH-koak bizikletak festa izango dute eta LH-koak Goltzurko zelaira joango dira eta pista jokoa egingo dute. Horrez gain, ostegunean Berrobiko lagunen bisita izango dute, eta ostiralean egun pasa joango dira.

Gipuzkoako kostaldea zeharkatuko dute Mendibil taldekoek

Ibilaldia larunbat honetan izango da; izena Astiz edo Maimur liburudendetan eman daiteke

M.U. Leitza

Hilaren 21ean, larunbatean, Zumaia-Debara egingo dute ibilaldia Mendibil Mendi Taldekoek. Horretarako, 08:00etan Oialde paretik abiatuko dute, eta 14:30ak al-

dera itzuliko dira. Gainera, nahi-koa jende elkartzu gero autobusean joango dira. 11,5 kilometroko ibilbidea egiteko 3 ordu eta 45 minutu inguru beharko dituztela uste dute.

Izena Astiz edo Maimur liburu dendetan eman daiteke, edo bestelamendibilaurrera@hotmail.com helbidera idatzi behar da osteguna baino lehen.

Irteera honetara joan nahi duten gaztetxoek arduradun bat izan beharko dute, bertan parte hartu ahal izateko.

→ Laburrak

'Enjoy English' udaleku- etan izena emateko epea

IBARRA ▶ Ekainaren 29tik uztailaren 26ra Uzturpe Ikastolak, Ibarako Udalarekin batera *Enjoy English* jatorrizko ingeles hitzuntak diren hezitzaileak gidatutako udaleku irekia antolatuko du. Jokoak, eskulanak, ipuin kontaketak, antzerkiak, proiektuak eta abar ingelesez landuko dira bertan. 8-12 urtekoentzat lekua dago, eta haurrak parte hartze animatzen dituzte. Informazio gehiago nahi duenak telefono honetara deitu: 943 671299.

Atez atekoaren inguruko hitzaldia, Zizurkilen

ZIZURKIL ▶ *Atez-ateko zabor bilketa* hitzaldia eskainiko du Imanol Azpirozek gaur, 19:00etan Atxulondo kultur etxean. Azpiroz Usurbilgo Udaleko Ingurumen zinegotzia da. Usurbilen gaur egun hondakinak atez ate biltzen dituzte, eta honen inguruan hitz egingo du.

'Pizgailu magikoa' ipuin- kontaketa ostegunean

IBARRA ▶ Hilaren 21ean ospatuko den Kultur Aniztasunaren Nazioarteko egunaren inguruan, Mundu bat Tolosaldean ekimenak *Pizgailu magikoa* ipuin-kontaketa saioa antolatuko du Ibarako Benito Izagurre Kultur Etxean ostegunean, 17:30ean. Saioa 6 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendua da eta bertan gurasoak ere parte hartze gonbidatuta daude. Ipuin kontaketa arabieraz eta euskaraz izango da eta Kolore Guztiak elkarteak kideak eta Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango dira saioaren kontalaria.

Bideo emanaldiarekin hasiko da Aste Kulturala

ALBIZTUR ▶ Aste Kulturalaren baitan bideo emanaldia izango da bihar, 10:00etan, udaletxe-ko hitzaldien aretoan. Bideo hone- tan eguneko zentzura joaten diren adineko eta ezinduek iragan eta egungo errealitatea azalduko dute, beraien ingur- nean bizitzen mantentzeak duen garrantzia azpimarratuz.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Ile apaindegia.** Esperientzia-
dun pertsona behar da lanaldi
osoz lan egiteko. Interesa du-
enak bidali dezala curriculum
metxa2@yahoo.es helbidera.
■ **Ile apaindegia.** Tolosako ile
apaindegi batek esperientzia-
dun pertsona bat behar du, lanaldi
osoz lan egiteko. Interesatu-
ek deitu 625 70 50 59 telefonora.
■ **Emakume euskalduna.** Etxe-
ko lanak egin eta umeak zain-
tze emakume euskalduna
behar da, Zizurkilerako.

07:00etatik 15:00etara. Inter-
esatu-
ek bidali mezua igor.lahidalga@gmail.com helbidera.

ESKAINTZA

■ **Klase partikularrak.** Psikope-
dagogia eta hezkuntza bere-
zian tituludunak LHko eta DBH1
eta DBH2ko ikasleei zuzendu-
tako klase partikularrak
emango lituzke. Andoain, Adu-
na, Villabona, Zizurkil, Astea-
sun edo inguruetan. Interesa-
tuek deitu 669 005 671 telefo-
nora.

ALOKAIRUA

■ **Irura.** Garaje itxia alokatzen
da Iruran. Interesatu-
ek deitu 636 530 000
telefonora.

SALGAI

■ **Apartamentua.** Jakako
apartamentua salgai dago.
Altzariz guztiz hornitua.
Erdigunean, parkegune handi
baten ondoan. Garajea eta
trastelekua du. Prezio
interesgarria. Interesatu-
ek deitu 667 492 557 telefonora.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

↓ **Kirol emaitzak****PILOTA****ESKUZ BANAKAKO****TXAPELKETA**

Lehen Maila, final laurdenak	22
Oinatz Bengoetxea	6
Patxi Ruiz	

Bigarren Maila, final laurdenak

Mikel Olaetxea	22
Ongay	17

FUTBOLA**ERREGIONAL OHOREZKO MAILA**

32. jardunaldia	
Hondarribia	1
Tolosa CF	2

Sailkapena

1. Real Union (74 puntu)
2. Hernani (72 puntu)
3. Pasajes (65 puntu)
7. Tolosa CF (47 puntu)

ERREGIONAL PREFERENTE MAILA

30. jardunaldia	
Tolosa B	0
Euskalduna	1
Intxurre	3
Mondragon B	0

Sailkapena

1. Urola (60 puntu)
2. Elgoibar (58 puntu)
3. Mutriku (57 puntu)
6. Tolosa B (44 puntu)
12. Intxurre (38 puntu)

ARETO FUTBOLA**NAZIONAL A MAILA**

29. jardunaldia	
Burgos	2
Lauburu Ibarra	2

Sailkapena

1. Zierbena (71 puntu)
2. Burgos (51 puntu)
3. Zalatambor (50 puntu)
7. Lauburu Ibarra KE (46 puntu)

NAZIONAL B MAILA

29. jardunaldia	
Santurtzi	2
Laskorain Ikastola	3
Orioko tabernakl	1
Irish Pub Sheperds	5
Transportes Lakunza	2
Zarautz	6

Sailkapena

1. Concepto Createch (79 puntu)
2. Laskorain Ikastola (62 puntu)
3. Bilbo (59 puntu)
10. Irish Pub Sheperd's (36 puntu)
11. Transportes Lakunza (34 puntu)

EUSKAL LIGA

29. jardunaldia	
Goierri	5
Hirukide Tolosala	6

Sailkapena

1. Inter eder (60 puntu)
2. Mallabia (54 puntu)
3. Santurtzi (49 puntu)
4. Hirukide Tolosala (48 puntu)

SASKIBALOIA**LEHEN MAILA**

18. jardunaldia	
Take Bide Bide Ibiza	73
Promociones Legarcia	57

Sailkapena

1. Viajes Marfil (12-6)
2. Take Bide Bide Ibiza (12-6)
3. Mondragon Unibertsitatea (12-6).

AIZKORA**Urrezko Aikolariak Banakako Txapelketa**

Jon Rekondo	17:12"
Itñaki Azurmendi	18:11"

* Leitzarrak Olasagastiren lekua hartu du, eta finalerdietan aurkitzen da.

Bengoetxea VI.a, Olaetxea eta Jaunarena finalerdietan aurkitzen dira

Maiatzaren 22an, igandean, Jon Jaunarena leitzarrak jokatu du Merino I.aren aurka bigarren mailan

Asier Imaz

Oinatz Bengoetxeak sendo jarraitzen du Lehen Mailako Banakako Txapelketan. Herenegun Patxi Ruiz 6ean utzi zuen, beste mundu-

ko partidarik egin gabe. Ruizek lehia ongi hasi zuen, baina bosgarren tantotik pasatzea asko kostatu zitzaion. Leitzarrak berriz, bere ohiko jokoa egin zuen eta garaipea erraz eskuratu zuen. Orain, finalerdietan Olaizola II.aren aurka jokatu beharko du. Jaialdia Donostiako Atano III.a pilotalekuan jokatu da, hilaren 29an, 17:00etatik aurrera.

Bigarren finalerdia Idoate eta Xalaren artekoa izango da. Hauek Iruñeko Labrit pilotale-

kuan jokatu dute, hilaren 21ean. Jaialdia 17:30ean hasiko da.

Bigarren mailari dagokionez, Jon Jaunarena leitzarrak Merino I.aren aurka jokatu du hilaren 22an, igandean. Bigarren finalerdian Mikel Olaetxea egongo da, iragan ostiralean Ongayri final laurdenetako partida irabazi ostean. Lizartarrak Ongay 17an utzi zuen. Finalerdietan Peñagarikanoren aurka jokatu du, hilaren 29an.

Oier Otxoa xake jokalaria Euskadiko Txapelketan egongo da

Villabona, Anoeta eta Irurako haurrek Kutzako Xake Txapelketan hartu dute parte



Xake jokariak Anoetako udal ordezkariekin batera. HITZA

Erredakzioa

Kutzako Xake Txapelketa jokatu da Anoetan. Bertan, Villabona, Anoeta eta Irurako 45 partaide inguru egon dira. Amaieran, udal ordezkariak dominak banatu zizkieten partaideei.

Horrez gain, aurtien ere Anoetako eta Irurako hainbat xake ikaslek Vioñoko (Kantabria) Topaketan egoteko aukera izan dute. Unai Zubeldiak hirugarren

postua lortu zuen prebenjaminetan. Gainontzekoek ere bikain jokatu zuten, oso maila ona erakutsi zuten eta irribarretsu iritsi ziren etxera.

Azkenik, Oier Otxoa Euskadi-

ko banakako txapelketa jokatzeko klasifikatu da. Maiatzaren 28 eta 29an izango da Gasteizen 10:00etatik aurrera, 28an goizez eta arratsalde, eta 29an goizez bakarrik.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakortzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider gareniz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galduta duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erabazteko izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@iragari.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leizta, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Osasun publikoaren aldeko aldarria

Larunbatean jendetza elkartu zen Tolosan, manifestazioan; herri mugimenduaren beharra aldarrikatu dute

Asier Imaz Tolosa

Tolosako kaleak jendez bete ziren larunbatean, Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde herri plataformak deituta.

Triangulua plazatik irten zen manifestazio jendetsua, eta kaleetan zehar osasun publikoaren aldeko aldarria zabaldu zuten. Herri mugimenduak ez ditu alferrik 12.000 sinaduratik gora bildu, eskualdeko ospitale publiko baten alde.

TOPA plataformako kideak manifestazioan zehar burututako azken jardueren berri emateko informazioa banatzen aritu ziren. Horiek horrela, abiarazitako sinadura bilketarekin batera, balkoietan zintzilikatzeko banderolak banatu dituztela, eta Tolosaldeko kultur etxean eta hainbat udaletxetan pankartak jarri dituztela gogoratu zuten. Era bere-

an, hitzaldi informatiboak ematen hasiak direla, eta maiatzaren 5ean alderdi politikoekin mahai inguru bat egin zutela nabarmendu zuten. Hauteskunde atari honetan, kalean zeresana ematen ari den mahai ingurua izan zen, gainera.

Mahai inguruaren ondorioak

Osasun zerbitzu publikoen gaiak eskualdean sortu duen kezka adierazle, larunbateko manifestazioa eta maiatzaren 5eko mahai ingurua izan daitezke.

Eskualdeko ordezkari politikoekin egin zen mahai inguruan, Tolosaldeko kultur etxea txiki gelditu zen. Bertan, Ezker Batua, Bildu, EAJ, PP, Aralar eta Hamaika Bateko ordezkariak egon ziren. PSE-EE ez zen egon mahai inguruan, eta plataformako kideek hutsune hau salatu nahi izan zuten larunbateko manifestazioaren ondoren, «jarrera koldarra» eta «azalpenik eman ez izana» leporatu.

Mahai inguruan hitz egindako az euren ateratako ondorioak ere banatu zituzten manifestazioan elkartu zirenen artean. Hauek dira Tolosaldea Osasun Publi-



Tolosan larunbatean osasun publikoaren alde egindako manifestazioa. M. UGARTEMENDIA

aren Alde plataformak laburbildutako hiru ondorio nagusiak: «Especialitateetako anbulatorioa giza baliabide eta baliabide tekniko guztiekin hornitzearen alde agertu ziren alderdi guztiak, EAJ eta Hamaika Bat izan ezik. Alderdi guztiek eskualdeko ospitale publiko baten aldeko konpromisoa azaldu zuten, EAJ eta Hamaika Batek izan ezik. Hauek ez

zuten inongo konpromisorik hartu nahi izan, beraiek eskatutako ikerketa baten zain daudelako. Ikerketa hau ikuspuntu misto eta ez publiko batetik dago planteatuta, eta txostena ekainean aurkeztuko dutela azpimarratu nahi dugu. Eta Asuncion Klinika publiko bihurtzea proposatu da jendartetik, eta gu erabat ados gaudela aukera horrekin».

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzan erabakia hartua dagoela uste dute, eta hau aldatzeko herri mugimendua aldarrikatu zuten.

Manifestazioa bukatu aurretik, <http://osasunpublikoa.blogspot.com/> helbidean plataformak burutzen dituen ekitaldi guztien berri ematen dutela ere nabarmendu zuten TOPA koordinakundeko kideek.

Agurrak



Urte askoan Emilio!

Emilio Salaberria (Villabona). Besarkada handi eta iraultzaileak Villabonatik. Maite zaituztegu!

Agenda

DEIALDIK

■ **Tolosa.** Jaki mexikarren tailerra antolatu dute Urkizun Denboraren Bankuko emakumeek, hilaren 19an, ostegunean. Tolosaldeko Eroskiko parkinean 18:00etan gelditu dira, parte hartzaile guztiak autoz bertara elkarrekin joateko.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Santamaria I., Nafarroa etorbidea 2.
Telefonoa: 943 65 46 10.
■ **Leizta.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO** **hitza** info

bertako egunkaria

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /
Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldean.hitza.info

eraman/bidali zure datuak:
Araba etorbidea 5 behe, atzea • 20400 Tolosa

egin zaitetz harpidedun!